

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BILARKO UDALA

Euskal Autonomia Erkidegoarekin izenpetutako lankidetza hitzarmena, dokumentuen erregistroa gauzatzeko

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean xedatutakoarekin bat etorriz, osorik argitaratuko da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta Bilarko Udalak izenpetutako hitzarmena, Euskal Autonomia Erkidegoari zuzendutako idazkiak udal erregistroetan aurkezteko lankidetzari buruzkoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta Bilarko Udalaren arteko hitzarmena, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4.b) artikulua aplikatuz

(Euskal Autonomia Erkidegora zuzendutako idazkiak udal erregistroetan aurkezteko lankidetza)

Josu Iñaki Erkoreka Gervasio Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko sailburua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren izenean, eta

Enrique Pérez Mazo jauna, Bilarko Udaleko alkate-lehendakaria, udal horren ordezkartzan.

Hurrenez hurren, esleituta dauzkaten eskumenak erabiliz dihardute; alde batetik, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 71/2017 Dekretuan; bestetik, Gobernu Kontseiluaren 1996ko urriaren 29ko Erabakian, bertan onartu baitzen toki erakundeekin hitzarmenak formalizatzea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen (aurrerantzean 30/1992 Legea) 38.4.b) artikuluan aurreikusten dena betetzeko; eta bestetik, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean eta Toki Araubidean indarrean dauden lege xedapenen Testu Bateratuan (apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuz onartua).

Aldeek elkarri aitortzen diote bakoitzak esku hartzen duen gaitasuna, baita hitzarmen hau egiteko legezko ahalmen nahikoa ere, eta helburu horrekin, honakoa

Adierazten dute

30/1992 Legeak 38.4.b) artikuluan xedatzen du herri administrazioen organoetara zuzendutako eskaera, idazki eta jakinarazpenak ondoko hauen edozein administrazio organoren erregistroetan aurkeztu ahal izango direla: Estatuaren Administrazio Orokorra, autonomia erkidegoetako edozein administrazio, probintzia diputazioetako eta uharteetako kabildo edo kontseiluetako edozein administrazio, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 121. artikuluan jasotako udalak, edo toki administrazioa osatzen duten erakundeetakoren bat, azken kasu honetan dagokion hitzarmena izenpetu baldin bada.

Aipatutako araua aplikatuz, eta herritarrei gaur egun dauden herri administrazio desberdinekiko harremanak errazteko asmoz, orain izenpetzen den hitzarmenak gauzatu egiten du hartan esku hartzen duten administrazioek duten borondatea, herritarrek EAEko Administrazioaren edozein organori edo erakunderi zuzendutako dokumentuak balio osoz aurkezteko Bilarko Udalaren erregistroetan.

Horregatik, esku hartzen duten administrazioek hitzarmen hau formalizatzen dute, klausula hauen arabera.

Klausulak

Lehenengoa. Hitzarmen honen helburua da herritarrei aukera ematea Bilarko Udalaren erregistroetan aurkeztu ahal izateko EAEko Administrazioari eta hari lotuta edo haren menpe dauden eta berezko izaera juridikoa duten zuzenbide publikoko erakundeei zuzendutako eskaerak, idazkiak eta jakinarazpenak.

Bigarrena. EAEko Administrazioari eta hari lotuta edo haren menpe dauden eta berezko izaera juridikoa duten zuzenbide publikoko erakundeei zuzendutako eskaerak, idazkiak eta jakinarazpenak Bilarko Udalaren erregistroetan duten sarrera eguna baliozkoa izango da interesdunek epeak bete ditzaten, eta horretarako, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 30. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

Hirugarrena. Bilarko Udalak konpromiso hauek hartzen ditu:

a) Bere erregistroetan onartuko ditu EAEko Administrazioari eta hari lotuta edo haren menpe dauden eta berezko izaera juridikoa duten zuzenbide publikoko erakundeei zuzendutako eskaerak, idazkiak eta jakinarazpenak, edozein dela ere haien lurralde kokapena.

b) Bere erregistroetan EAEko Administrazioari zuzendutako eskaera, idazki eta jakinarazpenen sarrera jasotzea, idazpenetan hauek adierazita: zenbakia; zer-nolakoak diren adierazten duen epigrafea; sarrera eguna; zein egun eta ordutan aurkeztu diren; interesdunaren identifikazioa; hala badagokio, zein administrazio organok igortzen duen, eta zein pertsona edo administrazio organori bidaltzen zaion eta, hala badagokio, jaso den idazki edo jakinarazpenaren edukiaren erreferentzia. Hori guztia 30/1992 Legeak 38.3 artikuluan eta bigarren xedapen gehigarrian xedatutakoarekin bat etorritik.

c) Behin erregistratu ondoren, berehala bidaliko dira agiriak bidali beharreko organo edo erakundeetara, berariaz adierazita irteera eguna, betiere agiriok jaso eta hurrengo bi egunak igaro baino lehen. Erabili beharreko bideak erabiliko dira agiriak alaitan jaso daitezkeen, ahal dela teknika eta baliabide elektronikoa, informatikoa eta telematikorik egokienetara jota, 30/1992 Legeak 45. artikuluan eta horrekin bat datozen gainerako arau eta xedapenak xedatutako berme eta betekizunekin.

Laugarrena. EAEko Administrazioak konpromiso hauek hartzen ditu:

a) Bilarko Udalarik EAEko Administrazioa osatzen duten eta hari lotuta edo haren menpe dauden organo eta erakundeen berri emango dio, eta aldian behin informazio hori eguneratuko du.

b) Herritarrei informazioa emateko tresnak emango dizkio Bilarko Udalarik, herritarrek EAEko Administrazioaren eta hari lotuta edo haren menpe dauden zuzenbide publikoko erakundeen funtzioez eta jardueraz jakin dezan.

c) Eman beharreko laguntza teknikoa eta lankidetzak emango dio erregistroen antolakuntzaz eta informatizazioaz.

Bosgarrena. Hitzarmenean esku hartzen duten administrazioek elkarri informazioa emango diote interkomunikazio sistemen bateragarritasunari eragin diezaioketen erregistroak informatizatzeko neurriez, eta, hala badagokio eta bere garaian, elkarren erregistroen bateragarritasun informatikoa eta koordinazioa bermatuko duen lankidetzak hitzarmena formalizatuko dute.

Seigarrena. Hitzarmen honetako indarraldia Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak jasotako erregistro elektronikoa buruzko aurreikuspenak indarrean sartu arte izango da, eta gehienez ere, 4 urtekoa izango da, hitzarmena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ondorengo egunetik aurrera.

Era berean, hitzarmenaren indarraldia iraungituko da: a) esku hartzen duten administrazioen arteko adostasunez, eta b) horietakoren batek bere kasa hartutako erabakiz, frogatzen bada beste alderdiak, era larrian, ez dituela bete bere gain hartutako betebeharrak.

Hitzarmenaren formalizazioa eta iraungitzea EHAAn, ALHAOn eta Bilarko Udalaren iragarki taulan argitaratuko dira.

Zazpigarrena. Hitzarmen honen interpretazio eta aplikazioan sor litezkeen zalantzak eta auziak Gobernantza Publiko eta Autogobernu sailburuak ebatziko ditu izaera exekutiboz. Haren ebazpenen aurka administrazioarekiko auzien jurisdikziora jo ahal izango da.

Eta agiri honetan jasotakoarekin ados daudela erakusteko, eta behar den tokian hala jasota gera dadin eta eragin beharreko ondorioak eragin ditzan, alderdiek hitzarmenaren jatorrizko bi ale izenpetzen dituzte, goiburuan jarritako toki eta egunean.

Hori guztia jakitera ematen da jende orok jakin dezan.

Bilar, 2019ko irailaren 11

Alkatea

ENRIQUE PÉREZ MAZO